



euskaldunagoa

Unibertso **euskaldunagoa**
gure haurrentzat

Etorkizunean haurrek euskaraz egin dezaten txikitatik euskarazko ingurune batean haztea funtsezkoa da.

Inguru horretan eragiteko ahalmen gehien dutenak gurasoak izanik, Taupa euskaltzaleen mugimenduan gurasoei zein haurrei zuzendutako ekimen berri bat prestatu dugu.

Zer da?

Gure haurren ingurunea euskaldunagoa izatea nahi duten familientzako ekimen berria da. Norabide horretan aurrerapausoak eman nahi dituzten familiei **baliabideak, tresnak eta euskarazko espazio berriak** eskainiko dizkiegu eta horretan hasi nahi duten familiei, berriz, **abiapuntu eroso bat**.

Norentzat da?

0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoentzat (edo guraso rola betetzen duten helduentzat), **euskaraz jakin ala ez**.





Zein da helburua?

Haur eta gaztetxoen eguneroko atmosferan **euskararen presentzia handitzea** (aisia, kultura, pantailak, ohiturak...) familiei **baliabideak, tresnak eta elkargune egokiak eskainiz**.

Noiz eta non egingo da?

Maiatzaren 7tik 17ra, Euskal Herri osoan, ekimena antolatzea erabaki duten herrietan.

Guraso izanik zer egin dezaket?

Zure haur(ar)en ingurua euskalduntzen hasi nahi baduzu, edota norabide horretan jarraitzeko zer egin dezakezun ikusi nahi baduzu, **eskaneatu azpiko QR kodea** eta sartu Gurasoen Txokoan. Bertan **familientzako baliabideak, ideia praktikoak eta Eusferaren inguruko informazio** guztia topatuko duzu.



eusfera TAUPA
Unibertso euskaldunagoa
gure haurrentzat



Info guztia: eusfera.taupamugimendua.eus